

NAFARROAKO ERREGE KONTSEILUA

Kontseiluak aholku-erakunde nagusia izan dira historian zehar. Erromatar Goi Inperioko *Consilium Principis* izenekoak aholkuak ematen zizkion enperadoreari, eta ospe handiko legelariak sartu ziren bertan, hala kontsultak ebazteko, nola auzitegi inperialari zuzendutako auziak bideratzeko; orduz geroztik, bilakaera interesgarria gertatu da.

Erdi Aroan, erakunde politiko bakoitzak bere kontseilua zuen, erregearen inguruan sortua hari aholku emateko; auzitegi goren gisa ere jarduten zuen, erregearekin batera.

Nafarroak, Goi Erdi Aroan erresuma burujabe gisa eratu zenetik, Kontseilua eduki zuen. Hasiera batean, erresuma sortzean, Erregearen Kuria edo Gortea eratu zen, erregearen hurbilekoek, zerbitzu nagusien arduradunek eta pertsona garrantzitsuek osatua. Kuriaren barruan, pixkanaka-pixkanaka, kargu espezializatuagoak sortu ziren, eta, XII. mendeaz geroztik, zuzenbideko adituak agertu, eta epaile batzuen eginkizunak finkatu ziren, zeinei garai hartan *alkate* esaten baitzitzaien.

XIII. mendean, Teobaldo I.aren erregealdian, garbi zehaztu ziren administrazio-erakunde batzuk, besteak beste, *Errege Kontseilua*. Kontseilu hori, hasiera batean, erresumako hamabi nagusiek osatu zuten, hots, hamabi *handiki lehenek* edo "lurraldeko zaharren arteko hamabik", Nafarroako Foru Orokorraren lehen legean xedatutakoari jarraikiz. Foruaren arabera, erregeari erresumako erabaki garrantzitsuenak hartzeko aholku ematea zen haren eginkizun nagusia. Hortaz, gobernuari buruzko aholkuak ematen zizkion erregeari, baina justizia-administrazioan ere esku hartzen zuen. Denborak aurrera egin ahala, Kontseiluaren osaera teknikoagoa bilakatu zen: zuzenbideko adituak sartu ziren eta justizia-auzitegi goren bihurtu zen, Gortearen (*Cort*) gainetik.

Kontseiluaren eta Gortearen arteko harremana nahasgarria izan zen hasieran. XIII. mendearen erdialdetik aitzina, Gortearen Auzitegia (*Tribunal de la Cort*) deitu zitzaion Kontseilua ez zen beste auzitegi bati. Gorteak traizio-delituetan eta erregearen jurisdikzioari zegozkienetan zuen eskumena, baita kapareei zegozkien gaietan eta errekursoetan ere, nahiz eta eskumenak galdu zituen denborak aurrera egin ahala. Epaileak Gorteko alkate deitzen ziren, eta, hasiera batean, Kontseiluko kide ere baziren.

Hala ere, XV. mendearen erdialdetik aitzina, bi erakundeak bereizi egin ziren, eta erabaki zen Gorteko alkateak informazioa emateko baizik ezin zirela Kontseilura joan. Gortea Gorte Nagusi izendatu zen gero; Kontseiluaren azpiko auzitegi bihurtu zen, eta eginkizun judizialak betetzera mugatu zen. Gortearen funtzionamendua Karlos III. Noblearen 1413ko ordenantza batzuen bidez arautu zen. Haien arabera, lau alkatek osatzen zuten, Gorteen hiru estamentuetako bakoitzaren eta erregearen ordezkari, prokuradore fiskal batek, lau notariok eta mendeko zenbait langilek.

Nabarmentzekoa da Errege Kontseilua, auzitegi gorena izateaz gain, gobernu-erakundea ere izan zela, eta beti bete zuela kontseilu- edo aholku-lana erresumarako garrantzitsuak ziren gaietan.

1417an, erregeak Mosen Diego Gartzia de Untzue izendatu zuen Erresumako justiziako lehen ofizial tekniko, "kontseilari jarraitu" izendatu baitzuen. 1450eko Erriberriko Gorteetan, Kontseilua auzitegi nagusi bilakatu zen, zegokion administrazio-jarduera alde batera utzi gabe. Orduan erabaki zen Kontseiluko kide ziren Gorteko alkateak informazioa emateko baizik ez zirela joanen erakunde horretara, eta ez zutela eskumenik izanen Gortearen epaien apelazioetan.

1494an, Kontseiluko buruaren kargua sortu zen, eta "Kontseilu murriztua" ezarri zen errege-aginduak aztertzeko. 1496an, teknikoagoa eta kualifikatuagoa zen "Kontseilu murriztu" horri esleitu zitzaizkion lehenago Errege Kontseiluaren osoko bilkurari zegozkion justizia-administrazioaren arloko eskumenak.

1500 inguruko ordenantza bereki batzuen arabera, "Kontseilu murriztua" (gero "Kontseilu arrunta" izena hartuko du), zortzi kidek eta buruak osatzen zuten, zuzenbideko profesionalak denak, eta administrazio-organoren gorena izateko xedea hartu zuen. Gobernu-gaietako epaimahai eta aholku-organoren gorena zen.

Nafarroa Gaztelan sartu zenean, 1515ean, bere errege-erreginak izateari utzi zion, eta, beraz, harrezkero Kontseiluak erregeordeari eman behar zizkion Nafarroari buruzko aholkuak, hura baitzen erregearen edo erreginaren ordezkaria Nafarroan. Nafarroako Errege Kontseiluak Iruñean zuen egoitza eta hura izan zen bere egoitza gortetik at zeukan Monarkiaren Kontseilu bakarra.

1525ean, Valdés bisitatzaillearen ordenantzei jarraikiz, sei kontseilarik eta buruak edo arduradunak osatu behar zuten Kontseilua. Lau idazkari ere bazituen, fiskala, ondarearen arlokoa (haren eginkizunak fiskalak bete zituen 1550era arte), errege-abokatua eta txiroen abokatua, baita beste abokatu batzuk, prokuradoreak, errelatoreak, atezainak eta beste batzuk ere (komisarioak, kapilauak, isun-jartzailea, kantzelaria, artxibozaina, gordailuzaina edo eskatzaileak). 1525eko ordenantzek gobernu-eginkizuna ere aipatzen zuten, eginkizun judizialarekin batera, haren xedea «prozesuak eta negozioak bideratzea» zela adierazten baitzuten.

Kontseiluan hiru saio mota egiten ziren: "epaiketakoa", "erabakitzekoa" edo "kontsultakoa". Epaiketako saioetan, auziez arduratzen zen, baina epaitu gabe; erabakitzekoetan, administrazio-autoak edo prozesuen epaiak ematen zituen, eta kontsultakoetan, erregeordearekin biltzen zen, astero, gobernu-gaietan aholkuak emateko.

1555ean xedatu zen Kontseiluko kideek ezin zutela gobernu-gaietan erabakirik hartu aldeztetik erregeordeari kontsultatu gabe. Kontseiluak eliz gaietan, gai ekonomikoetan, lurralde-mugetan edo kargu publikoen izendapenean esku hartzen zuen, eta tokiko administrazioan egiten zuen lana ere da nabarmentzekoa; horrela, merindadeetako eta udaletako ofizial publikoak haren kontrolpean gelditzen ziren.

Kontseiluak erregeordearen esku-hartzerik gabe erabakitako ordenantzak eta autoak ematen zituen eta, 1561etik aitzina, foru-baimena edo oniritzia ematen zien erregearen xedapenei (errege-zedulak edo -aginduak) erresumaren foru eta legeen aurkakoak ez baziren.

Erresumako auzitegi gorena zenez, garrantzi handieneko auziez arduratzen zen, Gorte Nagusiaren eta Kontuen Ganberaren epaien apelazioez eta bi erakunde horien arteko eskumen-gatazkez.

Martin de Eusak *Ordenanzas del Consejo Real de Navarra* izeneko lana argitaratu zuen 1622an eta hartan jaso zituen Errege Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko ordenantzak, baita Gorte Nagusiaren eta Kontuen Ganberaren funtzionamenduari buruzkoak ere.

“Kontseiluaren etxeak” izan ziren Errege Kontseiluaren eta Gorte Nagusiarekin egoitza. Iruñeko Udalaren jabetzako egoitza horrek Kontuen Ganbera zeukan parean, Erdi Aroko eraikin bat, gaur egun arte iraun duena.

Nafarroako Errege Kontseilua 1836an deuseztatu zen, urte horretako abuztuaren 27an Lurralde Auzitegia ezarri zenean. 1836ko martxoaren 6ko Errege Dekretu batek Kontuen Ganbera kendu zuen eta, nahiz eta apirilaren 22an gobernu zentralak Errege Kontseiluaren eta Gorte Nagusiaren ordeztu Iruñean Auzitegi bat ezartzea agindu zuen, Diputazioa aurka agertu zen, eta erregeordeak neurria abuztura arte eten zezan lortu zuen.

Nafarroako Kontseilua, aro demokratikoan, Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia dela ezarri da 1982ko *Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren* esparruan, eta hark bermatu beharra duela ordenamendu juridikoa gorde eta betetzen dela; hala, erakundearen aholku-betekizuna berritu da, zeren, historian zehar, zuzenbidearen arloko teknikari profesionalen kidego bat izan baita, araudia betetzen dela zaindu beharra duena, eta Nafarroako herriaren interesak defendatu.

Mercedes Galán Lorda
Zuzenbidearen Historiako katedraduna
Nafarroako Unibertsitatea